

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Oñila'ren 29' an.

Len aipatu diran euskaltzain berak daude beren alkietan, Azkue maipuru dutelarik.

1. A. Intzak aitatu-ta, Euskaltzaindiak erabaki du: a) Euskaleriko apaizburuai dei bat egin: elizkizunetako euskal-liburutxoan utsunak betetzeko; b) *Boletín Eclesiástico* deitzen dan aldirokoan galdetu apaizburu abei: zer liburu edo bederatziuren bear dituzten beren elizetan; d) Irarkolai galdetu euskal-liburutxo abetatik zenbait gai dituzten; e) Saint Pierre urgazle jaunari idatzi, aŕen egiñik, Bidasoatik aruzko Euskalerian diran euskal-bederatziurenak Euskaltzaindiari bidali dizazkiola.

2. Azkue jaunak bere lan baten irakurpena egin du. Lan oŕen izena auxe da: *Categorías gramaticales, Morfología*'ren zati bat.

3. Irakuŕi Euskaleriko Udal batzuen idazkiak, euskal-liburutxoak beren ikastoletarako erosiko dituztela agindurik. Aretxabaleta, Azkoiti, Ondaŕabi, Itxasondo, Ernani, Eŕrenderi, Urnieta, Abadiano, Eloŕio, Erandio ta Markina oraingoz aipatu bear dira.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.
